

IRITZIA

# Superstudioren lauki-saretik Archigram biribildura.

Iñaki Etxeberria  
Arkitektoa



+++++

Marrazkigintza bere jatorritik edozein osagai aztertu, ulertu eta irudikatzeak erabili izan da. Irudikatzeak eskatzen duen ariketa mentala errazteko erreminta da, irudimenaren makulua finean. Bide horretatik, sormenean eta arkitekturaren bereziki, oraindik existitzen ez den ideia inguruko ezaugarriak kontrolatzea ahalbidetzen digu.

Geure buruan sortzen denaren isla, askotan utopien munduan barrena sartzeko joera izaten dugu. Hala, marrazketak eskainitako aukerak muturrera eramaten ditugu. Era horretan, horiek erabiltzeko moduak guk sortuko duguna erabat baldintzatzen du.

Historian zehar utopiak azaltzeko marrazkigintza baliatu dutenak asko izan dira: Frank Lloyd, Wright *Broadacre City* lantzerakoan; Mies Van der Rohe, Friedrichstrasse Office Buildingerako lanetan; baita ondorengo bi adibideak ere: Superstudio eta Archigram taldeak.



Superstudiokoek, esaterako, marrazki zein collageak erabiltzen zituzten asko. Lan horietan euren utopiei lauki-sareaz eta argazkiz ematen zieten forma. Irudi horiek gehienetan adierazgarritasuna lortzeko erabili zituzten. Euren lanen eskala izugarria baliatuta, ikuslearengan harridura sortu nahi izan zuten: Firenze urperatuta erakutsi zuten, Irlandako Moher labarretan izugarritzko egitura jarri zuten, Manhattan zeharkatzen zuen eraikina sortu zuten, hegan balego legez... Isladen arteko jokoak ere landu zituzten San Frantziskoko zubi gorrian eta Mexikoko desertuan. Azken finean, eraikitzearen

teknikak zein errealitateak uzurtzen utzi gabeko sentipenak irudikatzea zen haien xedea eta emaitza ederrak lortu zituzten.

Archigrameko kideek, aldiz, utopiaren mundua beste era batez landu zuten; *Plug-in City* Hiri gehigarria edo *Moving-City* Hiri mugikorra moduko proiektuetan, esaterako. Londrestar horiek gainera, marrazkiarekin irudikatzen zutenaz aparte, adierazteko moduari asko erreparatzen zioten. Zuri-beltzeko marrazkiek mugitzen zen hiria, hegan eraiki zitekeena, futurista, kontsumista eta teknologiazalea erakusten zuten. Horretarako, iruditan soilik adieraz zitezkeen egiturak azaltzen zituzten eta azken hitzeraino landutako konposizioz jantzi. Superstudiokoek ideia ahalik eta sinpleen erakusten zuten, eta Archigramekoek, aldiz, ahalik eta garatuen egin nahi izaten zuten.

Bi taldeen lanak emaitza erabat desberdinak eratorriagatik, eredutan hartzeko modukoak dira biak ala biak ere. Gaur egungo garaian, ordenagailuak ahalbidetutako mundu digitalaren abantailan murgilduta gabiltzan arren, badu marrazkiak irudi errealistek eskaintzen ez duten kalitate jakin bat. Dela bat-batekotasuna, dela adierazkortasuna, irudi hauekin irudikatu nahi denarekiko hurbiltasuna lortzen da. Hala lortu zuten haiek eta era horretan erabili beharko genuke geuk ere. Gainera, eskuzko marrazkigintza mundu digitalean sartzen doa Wacom eta halako tabletekin, eta, beraz, aukerak badauzkagu bi munduak uztartzeko.

+++



Goiko irudia: "Walking City", Ron Heron, 1964; Beheko irudia: No Stop City, Archizoom (Andrea Branzi, Massimo Morozzi, Gilberto Corretti, Paolo Deganello, Lucia Morozzi, Dario Bartolini), 1970-71.